



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK, SA KONPAINIAKO KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A. APLIKATZEOA DEN KONTRATAZIO ESPARRUA

B. ARAU HARMONIZATUEI LOTUTA EZ DAUDEN KONTRATUAK

I. Oro har aplikatzeko arauak

1. KONTRATAZIO ORGANOA
2. KONTRATISTEN BETEKIZUNAK
3. KONTRATUKO ELEMENTUAK
4. KONTRATUA PRESTATZEA
5. KONTRATUA EGITEA
6. KONTRATUA GAUZATZEA

II. Baldintza agiria

III. Esleitzeko prozedurak

1. OBRA KONTRATUAK
2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIKETA, ZERBITZUAK ETA BESTE)

IV. Errekurtsoak

C. ARAU HARMONIZATUEI LOTUTAKO KONTRATUAK

I. Oro har aplikatzeko arauak

1. BEREZITASUNAK, KONTRATISTEN BETEKIZUNAK DIRELA ETA
2. KONTRATUA PRESTATZEA
3. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA

II. Baldintza agiria

III. Esleitzeko prozedura



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

IV. Errekurtsoak

1. PRESTATZEA ETA ESLEITZEA
2. ERAGINAK ETA IRAUNGITZEA

V. Administrazioaren kabuz berrikustea

D. KONTRATATZAILE PROFILA

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

III. ERANSKINA



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK, SA KONPAINIAKO KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A. APLIKATZEKO DEN KONTRATAZIO ESPARRUA

DONOSTIAKO HILETA ZERBITZUAK, SA (aurrerantzean, POLLOE) merkataritza sozietate bat da, eta haren kapitala, osorik, Donostiako Udalarena da.

Errauste eta hilerrri zerbitzuak kudeatu, egin eta ustiatzea bere jarduera izanik, besteak beste, zeregin hauek dira:

- a) Udal hilerrriak kudeatu eta ustiatzea.
- b) Errausketa labeak kudeatu eta ustiatzea.
- c) Hilerrriak eta errausketa labeak kontserbatzea eta mantentzea.
- d) Eguneko hilerrrietan harrera egitea.
- e) Hilotzak edo gorpuzkinak hobiratu, hobitik atera, erre eta ehorztea.
- f) Hilobiak eta horma hobiak eraikitzea.
- g) Hilobi eta horma hobien gaineko hileta eskubideen emakida onartzea eta eskualdatzea.

Sektore Publikoko Kontratuen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB edo, besterik gabe "legea") onartzen duen abenduaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bitartez, POLLOE «**sektore publikoa**»ren zati da (lege horretako 3.1.d) artikuluan ezarritakoari jarraituz), eta, Administrazio publikoa ez izan arren, lege horretan «**botere esleitsu**»**tzat hartzeko** ezarritako ezaugarriak betetzen ditu (legeko 3.3 artikulua). Ondorioz, SPKLTBn **bertan horri buruz xedatutakoa aplikatu behar da**.

POLLOEk egiten dituen kontratuak **kontratu pribatuak** dira.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

POLLOEK egiten dituen kontratuak kategoria hauetakoak dira:

1. **Legeari lotuta ez dauden kontratuak**, horrenbestez antolamendu juridiko pribatuari lotuak, edota aplikatzekoak zaizkien arau bereziei. SPKLTBko 4. artikuluan zehaztutako kontratuak dira (jarraibide hauen I. eranskin gisa doa artikulua hori). **Ez zaizkie aplikatzekoak hemengo jarraibide hauek.**
2. **Legeari lotutako kontratuak, arau harmonizatuen izaera gabe.** Kontratu guztiak dira halakoak, hurrengo kategoriakoak izan ezik. Aplikatzekoa zaie **jarraibide hauetako B idatz zatia.**
3. **Legeari lotutako kontratuak, arau harmonizatuen izaerarekin.** Aplikatzekoa zaie **jarraibide hauetako C idatz zatia.** Kontratu hauek dira:
 - Obra kontratuak, kalkulatzan zaien balioa 4.845.000 euro edo gehiago izanik.¹
 - Horniketa kontratuak, kalkulatzan zaien balioa 193.000 euro edo gehiago izanik.¹
 - SPKLTBko II. eranskineko 1. kategoriatik 16.era bitartean sartutako kontratuak, kalkulatzan zaien balioa 193.000 euro edo gehiago izanik.¹

Kopuru horietan ez dago sartuta BEZa.

Zenbatekoa gorabehera, arau harmonizatuei lotutako kontratu ez dira izango, inoiz ere, SPKLTBko 13.2 artikuluan (jarraibide hauekin batera doa, II. eranskintzat) zehaztutako kontratuak, ez eta SPKLTBko II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitartean sartutako kontratuak ere.

B. ARAU HARMONIZATUEI LOTUTA EZ DAUDEN KONTRATUAK

Kontratu hauek dira:

- Obra kontratuak, kalkulatzan zaien balioa 4.845.000 euro baino gutxiago izanik.
- Horniketa kontratuak, kalkulatzan zaien balioa 193.000 euro baino gutxiago izanik.

¹ Edo aurrerantzean Europako Batzordeak finkatzen duen kopurua, SPKLTBko hamaikagarren xedapen gehigarrian zehaztutakoari jarraituz.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- SPKLTBko II. eranskinako 1. kategoriatik 16.era bitartean sartutako kontratuak, kalkulatzeko balioa 193.000 euro baino gutxiago izanik.

Kopuru horietan ez dago sartuta BEZa.

- SPKLTBko II. eranskinako 17. kategoriatik 27.era bitartean sartutako kontratuak, eta 13.2 artikuluko horretako kontratuak, duten zenbatekoa edozein dela ere.

I. Oro har aplikatzeko arauak

1. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontrataziko gaitasunari dagokionez, POLLOEren estatutuetan xedatutakoari eta aplikagarri zaizkion zuzenbide pribatuko arauak jarraituko zaie.

Kontratazio organoa ondorengo hau da:

- a) Zenbatekoa 60.000 euro edo gutxiago duten kontratuetan:
 - Zuzendari kudeatzailea.
 - Administrazio Kontseiluko presidentea.
 - Edo Administrazio Kontseilua.
- b) Zenbatekoa 60.000 euro baino gehiagokoa eta 300.000 eurora bitartekoa duten kontratuetan:
 - Zuzendari kudeatzailea eta Administrazio Kontseiluko presidentea, elkarrekin.
 - Edo Administrazio Kontseilua bera.
- c) Zenbatekoa 300.000 euro baino gehiagokoa duten kontratuetan, Administrazio Kontseilua.

Kontratazio Organoak, kasuan kasu, berariaz ahaldundu ahalko ditu egoki deritzen pertsona edo pertsonak, kontratuari dagozkion jarduketak jakin batzuk gauzatzeko.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

2. KONTRATISTEN BETEKIZUNAK

POLLOErekin kontratua egin dezakete betekizun hauek betetzen eta egiaztatzen dituzten kontratistek:

2.1. Gaitasun baldintzak

Legeko 54. artikuluan ezarritakoak dira.

Aplikatzekoak izango dira 55. artikulua (Europar Batasunaz kanpoko enpresetarako) eta 56. artikulua (bateragarritasun baldintza bereziei buruzkoa).

2.2. Ahalmena

57. artikuluan (pertsoneko ahalmena), 58. artikuluan (Europar Batasuneko enpresen ahalmena) eta 59. artikuluan (enpresaburu elkartearen ahalmena) eskatutakoa izango da.

Ahalmena egiaztatzeko bidea 72. artikuluan dago xedatuta.

2.3. Kontratatzeko debekua dakarren kausa batean sartuta ez egotea

60.1 artikulua (kontratatzeko debekua) eta 73. artikulua (kontratatzeko debekurik ez duela frogatzeko bideena) aplikatuko dira.

2.4. Gutxieneko kaudimen baldintzak

Ekonomia, finantza, teknika eta lanbide arloko gutxieneko kaudimenaren baldintzak, kasuan kasu, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian zehaztutakoak izango dira, eta agiri horretan xedatutako eran egiaztatuko dira.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Baldintzen agiri horretan, kaudimena frogatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak zehazteaz gainera, kaudimen hori egiaztatzen duten gutxienerako mailak ere adieraziko dira.

Aplikatzekoak dira 62. artikulua (kaudimenaren eskakizuna), 63. artikulua (kanpo baliabideekin kaudimena integratzea) eta 64. artikulua (kaudimen baldintzak zehaztea).

2.5. Saillkapena

Administrazio saillkapena, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian halaxe jasota baldin badago baizik ez da galdatuko.

3. KONTRATUKO ELEMENTUAK

3.1. Kontratuaren xedea

POLLOEK kontratuak egingo ditu bere erakunde helburuak bete eta gauzatzeko behar direnean. Egin asmo den kontratuaren bidez estali nahi diren beharren izaera eta neurria, eta kontratuaren xedea eta edukia behar horiek asetzeko zenbateraino diren egoki, zehaztasunez adieraziko dira. Horren berri jasoko da prestatze dokumentuetan.

Kontratuaren xedea, 86. artikuluan xedatutakoa aplikatuz zehaztuko da.

3.2. Kontratuaren iraupena

POLLOEK zehaztuko du kontratuen iraupena, kontuan harturik prestazioen izaera, haien finantzaketaren ezaugarriak, eta prestazioak egitea aldian behin lehiara atera beharra. Alde horretatik, 23. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Kontratua luzatzeko aukerarik izanez gero, berriaz adieraziko da ekonomia eta administrazio baldintzen agirian.

50.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuak eta 18.000 euro baino gutxiagoko beste edozein kontratu (BEZa kanpoan utzita), zuzeneko esleipena egiten bazaie, betiere urtebeteko iraupena izango dute gehienez, eta ezingo dira luzatu.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

3.3. Prezioa

87. eta 88. artikuluetako arauak —kontratuaren prezioari, aurrez balioa kalkulatzeari eta lizitazioko aurrekontua erabakitzeari buruzkoak— aplikatu behar dira, Administrazio publikoa ez izategatik egin beharreko egokitzapenak eginda.

Prezioen berraztertzea, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian halaxe jasota baldin badago baizik ez da egingo.

4. KONTRATUA PRESTATZEA

4.1. Eskaera

Zuzenean esleitzea egoki denean izan ezik, kontratazioa hasteko, POLLOEko barne langileek inprimakia beteko dute: jarraibide hauekin batera III. eranskin gisa doan inprimakia, alegia. Inprimaki horretan jasoko dira, betiere, egin asmo den kontratuaren bidez estali nahi diren beharren izaera eta neurria, eta kontratuaren xedea eta edukia behar horiek asetzeko zenbateraino diren egoki.

4.2. Baldintza agiriak

Beharrezkoa izango da baldintzen agiria egitea, baldin kontratuaren zenbatekoa 50.000 euro baino gehiago bada (BEZa kanpo). Obrakoak ez diren kontratuetan ere, kontratazio organoak egoki baderitzo, baldintzen agiria egin ahalko da, baldin zenbatekoa 18.000 euro baino gehiago bada (BEZa kanpo).

Zenbateko horretatik gorako kontratuetan, ekonomia eta administrazio baldintzen agiria ez ezik, baldintza teknikoen agiria ere egingo da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lankontratu etako subrogazio-baldintzen berri emango da, Legearen 120. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

200.000 eurotik gorako obra kontratuak eta 60.000 eurotik gorako obraz besteko kontratuak lizitazio bidez ematean, baldintza agiriei buruzko azterketa eta txosten juridikoa egingo da.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Obra kontratuetan, orobat, dagokien obra proiektua egingo da. Horrek, kasuan kasu, baldintza teknikoan agiria ordeztu dezake.

SPKLTBko II. eranskinen 17. kategoriatik 27.era bitartean sartutako kontratuak, 193.000 euro edo gehiagokoak, gainera, 137.1 artikuluan xedatutakoari lotuta daude.

5. KONTRATUA EGITEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua idatziz formalizatuko da.

Kontratua zuzenean esleitzen bada —hala egitea egoki delako—, aurrekontua egitea eta aurrekontuaren onarpena idatziz jakinaraztea aski da formalizazio hori egiteko.

Ekonomia eta administrazio baldintzen agiria egiten ez bada, izenpetzen den kontratuak, nahitaez, SPKLTBko 26. artikuluan adierazitako aipamenak eduki beharko ditu.

Inoiz ere ez dira kontratuan sartuko, alderdiei baldintzen agirietan xedatutakoak ez diren eskubide eta betebeharrak ezartzen dizikieten estipulazioak. Kontuan hartuko dira aurkeztutako eskaintzako zehaztapenak, eta esleitze ekitaldikoak.

6. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratuaren eraginei eta iraungitzeari dagokienez, baldintza agirietan xedatutakoa aplikatuko da (agiri horiek, hala erabakitzen bada, Administrazio publikoan kontratazio arauak aplikatuko direla ezar dezakete); eta, ordeztu gisa, zuzenbide zibila, **kontratua aldatzeari dagokionez izan ezik; izan ere, horrelakoetan beti aplikatuko da I. Liburuko V. Tituluan xedatutakoa (Legearen 105, 106, 107 eta 108. artikulua).**

II. Baldintza agiria

Ekonomia eta administrazio baldintzen agiriak, prozedura negoziatuaren berezitasunak berezitasun, alderdi hauek zehaztuko ditu:

- Kontratazio organoa.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- Publizitatea, kontratatzaile profiltera iristeko modua, eta publizitate gastuak.
- Kontratuaren xedea eta, halakorik baldin bada, zein lote diren.
- Kontratu bidez asetzekoak diren beharrak, eta kontuan izan beharreko edonolako faktoreak.
- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, eta, hala banatu bada, urteka nola banatuta dagoen.
- Kontratu izaerako dokumentuak.
- Kontratuaren iraupena eta, halakorik baldin bada, luzapenak.
- Kontratua esleitzeko prozedura: prozedura irekia, murriztua edo negoziatua.
- Proposamenak aurkeztea:

Aurkezteko modua.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentuak).

Aurkezteko epea eta tokia.

- Kontratista:

Ahalmena.

Kontratatzeko debekuak.

Ekonomia eta finantza kaudimena (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

Teknika eta lanbide arloetako kaudimena (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

Gaitasun baldintzak

- Balioztatzea eta esleitzea:

Esleipen-irizpideak eta irizpide horien haztapena.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Prozedura negoziatua bada, negoziatutako alderdiak eta, hala badagokio, esleipen-irizpideak eta horien haztapena.

Onartutako proposamenak irekitzea.

Proposamenak ebaluatzea eta eskaintza ekonomikoki abantailatsuena hautatzea.

Eskaintza ekonomikoki abantailatsuena aurkezten duen lizitzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Kontratuaren esleipena eta horren jakinarazpena.

- Esleipendunak, hala badagokio, aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa eta horretarako epea.
- Kontratua formalizatzea eta epea.
- Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratuaren harrera eta kontrataturiko prestazioaren bermealdia.
- Prezioaren ordainketen araubidea.
- Kontratua suntsitzeko kausak.
- Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Gainera, ekonomia eta administrazio baldintzen agiriak alde hauek zehaztu ahalko ditu:

- Finantzaketa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: ea baimentzen diren, zer betekizun eta mugak dituzten, modalitateak, eta kontratuko zein aldetan onartzen diren.
- Prezioak berraztertzea (aplikatzekoa den formula edo indize ofiziala adierazita), SPKLTBko 87.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- Behin-behineko edo behin betiko bermeak.
- Sailkapena.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- Ahalmen eta kaudimen betekizunak egiaztatzeko dokumentuak aztertu ziren data.
- *Kontratua aldatzeko aukera, argi, zehatz eta zalantzarik gabe zehaztuta zer baldintzatan izango den posible, zer hedadura eta muga dituzten erabakitzen diren aldaketak, aldaketok kontratuaren prezioaren gainean izan dezaketen gehieneko eragina, portzentajeetan, eta jarraitu beharreko prozedura.Hori guztia, Legean (106. art.) horren inguruan xedatzen dena errespetatuz eta betez..*
- Kontratatari ezarritako isilpekotasun betebeharrak barne hartzen dituen gaiak eta aldia.
- Lagatzea eta azpikontratatea: ea kontratua lagatzeko betekizunak zein diren, eta ea zer prestazio edo prestazioen zer ehuneko kontrata ditzakeen kontratatistak (SPKLTBko 226.2.c) eta 227.5 artikuluei dagokienez).
- Atzerapenagatiko eta gauzatze akastunagatiko zigorrak.
- Antolamendu juridikoaren aurkakoak ez diren gainerako itunak, klausulak eta baldintzak.

III. Esleitzeko prozedurak

SPKLTBko 191. artikuluan xedatutakoa betez, jarraian adierazten dira esleitzeko prozedurak, kontratu moten eta kontratuen zenbatekoaren arabera.

Ondoren adierazitako guztia aintzat hartzeaz gainera, kontratazio organoak lehiatzeko elkarrizketaren prozedura erabili ahalko du, 179. artikulutik 183.era bitartean ezarritako kasuetan, eta artikuluko horietan ezarritako eraginekin.

Orobat, kontratazioa arrazoizkotzeko sistemetara jo ahal izango du (esparru hitzarmenak, kontratazio sistema dinamikoak eta kontrataziorako zentralak). Hala eginez gero, arau harmonizatuei lotutako kontratuak esleitzeari buruz 196. artikulutik 205.era bitartean ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

1. OBRA KONTRATUAK

1.1. Zenbatekoen arabera bereiztea



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Obra kontratuari dagokionez, hiru prozedura erabiliko dira, obraren diruzko zenbatekoaren arabera. Hala, bada:

- a) Obra kontratuak, 49.999,99 eurorainokoak.
- b) Obra kontratuak, 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitartekoak.
- c) Obra kontratuak, 1.000.000 eurotik 4.844.999,99 eurora bitartekoak.² Kopuru horietan guztietan, ez dago sartuta BEZa.

1.2. **Obra kontratuak, 49.999,99 eurorainokoak**

Kontratu mota horretan, **zuzeneko esleipena** erabiliko da oro har. Aurrekontua eskatuko da. Aurrekontu horrek POLLOEren onespena beharko du, eta kontratua izenpetuko da edo aski izango da aurrekontu hori berariaz eta idatziz onartzea eta onarpen hori jakinaraztea.

Kontratua bete dela egiaztatutakoan, prezioa ordainduko da; horretarako, kontratistak faktura aurkeztu beharko du, eta faktura horrek onespena jaso beharko du.

Dena dela, prozedura negoziatua, irekia edo murriztua ere erabili ahalko da; hala eginez gero, hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

1.3. **Obra kontratuak, 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitartekoak**

Kontratu mota horretan, **prozedura negoziatua, irekia edo murriztua** izapidetuko da, esleitzeko. Zehazki zein prozedura aukeratu den, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian agertu beharko da.

1.3.1. **PROZEDURA NEGOZIATUA**

Prozedura negoziatua hautatzen bada, izapide hauek egin beharko dira:

² Edo aurrerantzean Europako Batzordeak finkatzen duen kopurua, SPKLTBko hamaikagarren xedapen gehigarrian zehaztutakoari jarraituz.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egingo da. Horretarako, honekin batera III. eranskin gisa doan inprimakia beteko dute POLLOEko barne langileek.
- b) **Eskaintzen eskaera:** Eskaintzak eskatuko zaizkie, kontratuaren xedea egiteko gai diren hiru enpresari gutxienez.
- c) **Baldintza agiriak:** Ekonomia eta administrazio baldintzen agiria egingo da (jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean zehaztutako edukiarekin), bai eta baldintza teknikoen agiria edo obra proiektu egokia ere.

Dokumentu horiek azterketa eta txosten juridikoa beharko dute, kontratua 200.000 euro baino gehiagokoa baldin bada.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lankontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- d) **Publizitatea:** kontratua 200.000 eurotik gorakoa denean, haren lizitazioa eta esleipena argitaratuko da, kontratatzailearen profilean.

Kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Gainera, idatz zati honetako *g)* letran zehaztutakoa bete beharko da.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, esleipen-irizpideak eta horien haztapena zehaztuko dira, halaber.

Negoziatu ondoren eta, hala badagokio, azkenean aurkeztu diren eskaintzak ikusita, EEPko langile teknikoek Kontratazio Organoari bidaliko diote gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda; era berean, eskaintza ekonomikoki abantailatsuena zehaztuko dute.

Egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo atzera botatzeko arrazoiak eta egindako negoziatioak bilduko dituzte.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada, proposamenarekin batera txosten juridikoa landu eta aurkeztuko da..

- f) **Kontratua esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, langile teknikoek egindako proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

- g) **Aplikatu beharreko beste jarraibide batzuk:** prozedura negoziatua ere aukeratu ahalko da, edozein delarik ere diru zenbatekoa, 170. artikuluan eta 171. artikuluko a), b) eta c) idatz zatietan zehaztutako kontratuetan.

Halakoetan, 170. artikuluko a) eta b) idatz zatietan eta 171. artikuluko a) idatz zatian ezarritako kasuetan baizik ez da argitaratuko lizitazioaren iragarkia, kontratatzaile profileen.

Ekonomia eta administrazio baldintzen agirian edo jarraibide hauetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako, 151. artikuluko 1, 2 eta 3 idatz zatietan 169. artikulua, 176. artikulua, 177. artikulua, 178. artikulua eta horietan aipatu delako aplikagarri diren gainerako artikulua aplikatu beharko dira. Betiere, Administrazio publikoa ez izateagatik egin beharreko egokitzapenak eginda.

1.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MURRIZTUA

Prozedura irekia edo murriztua hautatzen bada, hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

1.3. Obra kontratuak, 1.000.000 eurotik 4.844.999,99 eurora bitartekoak



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Kontratu mota horretan, **prozedura irekia edo murriztua** izapidetuko da, esleitzeko. Zehazki zein prozedura aukeratu den, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian agertu beharko da.

Nahiz **prozedura irekia** aukeratu, nahiz **murriztua** aukeratu, betiere arau hauek aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** eskaera egiteko, honekin batera III. eranskin gisa doan inprimakia beteko dute POLLOEko barne langileek.
- b) **Baldintza agiriak:** ekonomia eta administrazio baldintzen agiria egingo da (jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean zehaztutako edukiarekin), bai eta baldintza teknikoen agiria edo obra proiektu egokia ere.

Dokumentu horietaz, azterketa eta txosten juridikoa egingo da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lankontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa, kontratatzaile profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behintzat argitaratuko da; edo, bestela, kontratatzaile profilean eta probintziako egunkari batean. Zehazki zein aukera hartu den adieraziko da ekonomia eta administrazio baldintzen agirian.
- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Ekonomia eta administrazio baldintzen agirian zehaztuko da proposamenak aurkezteko epea. Hala ere, inoiz ez da izango hogeita sei (26) egun baino gutxiagokoa, salbu eta kontratazio organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten salbuespeneko gorabeheraren bat baldin bada.
- e) **Proposamenak aurkezteko era:** proposamenak sekretuak izango dira, eta gutun azal itxietan aurkeztuko dira, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian zehazten den eran.
- f) **Ebaluazioa:** kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, eta irizpide horiek haztatzeko era, kontratazio organoak erabakiko ditu, eta iragarkian eta ekonomia eta administrazio baldintzen agirian adieraziko dira.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Aintzat hartu ahalko dira kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak, hala nola: kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berraztertzeko erabili beharreko formula, prestazioa gauzatzeko edo entregatzeko epea, erabilera kostua, ingurumen ezaugarriak edo gizarte eskakizunak asetzeari lotutakoak, errentagarritasuna, balio teknikoa, estetikako edo eginkizuneko ezaugarriak, ordezko piezak eskuragarri izatea eta kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoko zerbitzua, saldu ondoko zerbitzua, eta antzekoak.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan, Batzorde jakin baten osaera eta eskumenak bilduko dira. Batzorde horren ardura izango da aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazio-txosten objektiboa egitea eta Kontratazio Organoari esleipen-proposamena helaraztea; eta proposamen horretan barne hartuko da gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda (proposamen altuenetik baxuenera) eta eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren adieraziko du, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboei jarraiki..

200.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, aipatutako proposamenarekin batera txosten juridiko bat landu eta aurkeztuko da, betiere Batzordean aholkularitza juridikorik barne hartzen ez bada.

- g) **Kontratua esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, betiere kontuan hartuta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboak eta Ebaluazio Batzordeak egiten duen proposamena.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatzailleei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

Pleguan edo jarraibide hauetan esanbidez aurreikusi ez den kasuetan, honako artikulua hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura murrizturako, 151. artikuluan (1., 2. eta 3. idatz- zatiak) aurreikusitakoa.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- prozedura irekirako, 157., 158. eta 160. artikuluetan aurreikusitakoa (ezin izango da inola aplikatu adituen batzordearen edo erakunde tekniko espezializatuaren eskuhartzeari buruz aurreikusitakoa) eta 161. artikuluan aurreikusitakoa; prozedura murrizturako, 162., 163., 165., 166., 167., 168. artikuluetan eta horiekin lotura dutelaeta aplika daitezkeen gainerako artikuluetan, aurreikusitakoa. Bi kasuetan, Administrazio Publikoa ez izateagatik dagozkion moldaketak egin beharko dira.

2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIKETA, ZERBITZUAK ETA BESTE)

2.1. Zenbatekoen arabera bereiztea

Kontratu horiei (horniketa, zerbitzuak eta beste) dagokionez, hiru prozedura erabiliko dira, dirutan duten zenbatekoaren arabera. Hala, bada:

- a) 17.999,99 eurorainoko kontratuak.
- b) 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko kontratuak.
- c) Horniketa eta zerbitzu kontratuak, 100.000 eurotik 192.999,99 eurora bitartekoak;³ eta gainerako kontratuak, zenbatekoaren mugarik gabe.

Kopuru horietan guztietan, ez dago sartuta BEZa.

2.2. 17.999 eurorainoko kontratuak

Kontratu mota horretan, **zuzeneko esleipena** erabiliko da oro har. Aurrekontua eskatuko da. Aurrekontu horrek POLLOEren onespena beharko du, eta kontratua izenpetuko da edo aski izango da aurrekontu hori berariaz eta idatziz onartzea eta onarpen hori jakinaraztea.

Kontratua bete dela egiaztatutakoan, prezioa ordainduko da; horretarako, kontratistak faktura aurkeztu beharko du, eta faktura horrek onespena jaso beharko du.

³ Edo aurrerantzean Europako Batzordeak finkatzen duen kopurua, SPKLTBko hamaikagarren xedapen gehigarrian zehaztutakoari jarraituz.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Dena dela, prozedura negoziatua, irekia edo murriztua ere erabili ahalko da; hala eginez gero, hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

2.3. 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko kontratuak

Kontratu mota horretan, **prozedura negoziatua, irekia edo murriztua** izapidetuko da, esleitzeko. Zehazki zein prozedura aukeratu den, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian agertu beharko da. Baldintzen agiririk ezean, kontratazio organoaren berariazko erabakiz egingo da hautaketa.

2.3.1. PROZEDURA NEGOZIATUA

Prozedura negoziatua hautatzen bada, izapide hauek egin beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egingo da. Horretarako, honekin batera III. eranskin gisa doan inprimakia beteko dute POLLOEko barne langileek.
- b) **Eskaintzen eskaera:** Eskaintzak eskatuko zaizkie, kontratuaren xedea egiteko gai diren hiru enpresari gutxienez.
- c) **Baldintza agiriak:** Ekonomia eta administrazio baldintzen agiria egingo da (jarraibide hauekiko B idatz zatiko II. epigrafean zehaztutako edukiarekin), bai eta baldintza teknikoaren agiria ere.

Kontratuaren zenbatekoa 60.000 euro edo gutxiago denean, baldintzen agiriak egitea hautazkoa izango da.

Kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Dokumentu horiek azterketa eta txosten juridikoa beharko dute, kontratua 50.000 euro baino gehiagokoa baldin bada.

- d) **Publizitatea:** kontratua 60.000 eurotik gorakoa denean, haren lizitazioa eta esleipena argitaratuko da, kontratatzailearen profilean.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Kontratuaren esleipena kontratzailearen profilean argitaratuko da.

Gainera, idatz zati honetako *g)* letran zehaztutakoa bete beharko da.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, esleipen-irizpideak eta horien haztapena zehaztuko dira, halaber.

Negoziatu ondoren eta, hala badagokio, azkenean aurkeztu diren eskaintzak ikusita, EEPko langile teknikoek Kontratazio Organoari bidaliko diote gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda; era berean, eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren zehaztuko dute.

Egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo atzera botatzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak bilduko dituzte.

Kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada, proposamenarekin batera txosten juridikoa landu eta aurkeztuko da

- f) **Adjudicación del contrato:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleituko du kontratua, langile teknikoek egindako proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatzailerari jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoek egindako proposamena, horretarako arrazoiak adierazi beharko ditu.

- g) **Aplikatu beharreko beste jarraibide batzuk:** prozedura negoziatua ere aukeratu ahalko da, edozein delarik ere diru zenbatekoa, 170. artikuluan, 173. artikuluko a), b), c) eta d)



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

idatz zatietan, 174. artikuluko a), b), c) eta d) idatz zatietan eta 175. artikuluan zehaztutako kontratuetan.

Halakoetan, 170. artikuluko a) eta b) idatz zatietan, 174. artikuluko a) idatz zatian eta 175. artikuluan (zenbatekoarengatik prozedura negoziatua hartzen denean, zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa izanik) ezarritako kasuetan baizik ez da argitaratuko lizitazioaren iragarkia, kontratatzaile profilean.

Ekonomia eta administrazio baldintzen agirian edo jarraibide hauetan berriaz zehaztu ez diren kasuetarako, 151. artikuluko 1, 2 eta 3 idatz zatietan 169. artikulua, 176. artikulua, 177. artikulua, 178. artikulua eta horietan guztietan aipatu delako aplikagarri diren gainerako artikulua aplikatu beharko dira. Betiere, Administrazio publikoa ez izateagatik egin beharreko egokitzapenak eginda.

2.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MURRIZTUA

Prozedura irekia edo murriztua hautatzen bada, hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

2.4. 100.000 eurotik 192.999,99 eurora bitarteko kontratuak

Kontratu mota horretan, **prozedura irekia edo murriztua** izapidetuko da, esleitzeko. Zehazki zein prozedura aukeratu den, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian agertu beharko da.

Nahiz prozedura irekia aukeratu, nahiz murriztua aukeratu, betiere arau hauek aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** eskaera egiteko, jarraibide hauekin batera III. eranskin gisa doan inprimakia beteko dute POLLOEko barne langileek.
- b) **Baldintza agiriak:** Ekonomia eta administrazio baldintzen agiria egingo da (jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean zehaztutako edukiarekin), bai eta baldintza teknikoaren agiria ere.

Baldintzen agirian bertan edo dokumentu osagarrietan, lan kontratuetako subrogazio baldintzak jakinaraziko dira (halakorik baldin bada), SPKLTBko 120. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Dokumentu horietaz, azterketa eta txosten juridikoa egingo da.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian adieraziko dira, hala badagokio, lankontratuak subrogatzeko baldintzak, betiere SPKLTBren 104. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- c) **Publizitatea:** Litzentzia, kontratatzaile profileen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behintzat argitaratuko da; edo, bestela, kontratatzaile profileen eta probintziako egunkari batean. Zehazki zein aukera hartu diren adieraziko da ekonomia eta administrazio baldintzen agirian.
- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Ekonomia eta administrazio baldintzen agirian zehazturikoa izango da proposamenak aurkezteko epea. Hala ere, inoiz ez da izango hamabost (15) egun baino gutxiagokoa, salbu eta kontratazio organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten salbuespenezko gorabeheraren bat baldin bada.
- e) **Proposamenak aurkezteko era:** proposamenak sekretuak izango dira, eta gutun azal itxietan aurkeztuko dira, ekonomia eta administrazio baldintzen agirian zehazten den eran.
- f) **Ebaluazioa:** kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, eta irizpide horiek haztatzeko era, kontratazio organoak erabakiko ditu, eta iragarkian eta ekonomia eta administrazio baldintzen agirian adieraziko dira.

Aintzat hartu ahalko dira kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak, hala nola: kalitatea, prezioa, zerbitzua egiteari lotutako ordainsariak berraztertze erabili beharreko formula, prestazioa gauzatzeko edo entregatzeko epea, erabilera kostua, ingurumen ezaugarriak edo gizarte eskakizunak asetzeari lotutakoak, errentagarritasuna, balio teknikoa, estetikako edo eginkizuneko ezaugarriak, ordezko piezak eskuragarri izatea eta kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoko zerbitzua, saldu ondoko zerbitzua, eta antzekoak.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan, Batzorde jakin baten osara eta eskumenak bilduko dira. Batzorde horren ardura izango da aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazio-txosten objektiboa egitea eta Kontratazio Organoari esleipen-proposamena helaraztea; eta proposamen horretan barne hartuko da gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerranda (proposamen altuenetik baxuenera) eta eskaintza



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

ekonomikoki abantailatsuenaren adieraziko du, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboak jarraiki.

60.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, aipaturako proposamenarekin batera txosten juridiko bat landu eta aurkeztuko da, betiere Batzordean aholkularitza juridikorik barne hartzen ez bada.

- g) **Kontratua esleitzea:** Kontratazio Organoak eskaintza ekonomikoki abantailatsuenaren alde esleitu du kontratua, betiere kontuan hartuta Klausula Ekonomiko-Administratiboaren Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboak jarraiki eta Ebaluazio Batzordeak egiten duen proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak erabakiko du kontratuaren esleipena. Esleipena lizitatuari jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatuaren proflean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzeko orduan ez badu kontuan hartzen langile teknikoak egindako proposamena, horretarako arazoak adierazi beharko ditu.

Pleguan edo jarraibide hauetan esanbidez aurreikusi ez den kasuetan, honako artikulua hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura murrizturako, 151. artikuluan (1., 2. eta 3. idatzzatiak) aurreikusitakoa.
- Baldintzen agirian edo jarraibide hauetan berariaz xedatu ez denean, ondorengo hauetan xedatutakoa izango da aplikatzekoa: prozedura irekirako, 157., 158., 160. (baina inoiz ere ez da aplikatzekoa izango adituen batzordearen edo erakunde tekniko espezializatuaren esku hartzeari buruz xedatutakoa) eta 161. artikuluan; prozedura murrizturako, 162., 163., 165., 166., 167. eta 168. artikuluan, eta haietan guztietan eginiko aipamenengatik aplikatzekoak diren gainerakoetan. Bi kasu horietan, Administrazio publikoa ez izateagatik egin beharreko egokitzapenak eginda.

IV. Errekurtsoak



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Kontratu horien prestakuntzari, esleitzeari, eraginei, betetzeari edo iraungitzeari dagozkien gai orotan, **jurisdikzio zibilean** baizik ezingo da errekurtsoa aurkeztu.

SPKLTBren II. Eranskinaren 17. kategoriatik 27.era bitartean barne hartzen diren zerbitzu-kontratuen prestatzearekin eta esleipenarekin erlazionatutako alderdi orotan, baldin eta kontratuen zenbatekoa 193.000 euro edo gehiagokoa bada, jarraibide hauen C idatz-zatiko IV. Epigrafearen arabera erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuetarako xedatutakoari jarraituko zaio.

Gainera, egindako kontratuen eraginei, betetzeari eta iraungitzeari buruz desadostasunik sortuz gero, desadostasun horiek **arbitrajera** bidali ahal izango dira, ebaztera. Horretan, 60/2003 Legeko (2003ko abenduaren 23koa) xedapenei jarraituko zaie. Bidaltze hori ekonomia eta administrazio baldintzen agirian agertuko da; edo, agiri horren ezean, kontratuko beste edozein dokumentutan.

IFK/CIF A-20748042
10387n III 2011-03

C. ARAU HARMONIZATUEI LOTUTA DAUDEN KONTRATUAK

Kontratu hauek dira:

- Obra kontratuak, kalkulatzen zaien balioa 4.845.000 euro edo gehiago izanik.⁴
- Horniketa kontratuak, kalkulatzen zaien balioa 193.000 euro edo gehiago izanik.⁴
- SPKLTBko II. eranskineko 1. kategoriatik 16.era bitartean sartutako kontratuak, kalkulatzen zaien balioa 193.000 euro edo gehiago izanik.⁴

Kopuru horietan ez dago sartuta BEZa.

Hori guztia, 13.2 artikuluko kontratuak salbuetsita. Izan ere, 13.2 artikuluko kontratuak, kalkulatzen zaien balioa edozein dela ere, ez dira arau harmonizatuei lotutzat hartuko.

⁴ Edo aurrerantzean Europako Batzordeak finkatzen duen kopurua, SPKLTBko hamaikagarren xedapen gehigarrian zehaztutakoari jarraituz.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

I. Oro har aplikatzeko arauak

Arau harmonizatuei lotutako kontratuei, aplikatzekoa zaie jarraibide hauetako B idatz zatiko I. epigrafean arau harmonizatuei lotuta ez dauden kontratueterako xedatutakoa, berezitasun hauek eginda:

1. BEREZITASUNAK, KONTRATISTEN BETEKIZUNAK DIRELA ETA

1.1. Gaitasun baldintzei dagozkien berezitasunak

54. artikuluan eta 55. artikuluan ezarritakoaz gainera, aplikatzekoa da 44. artikulua (alde batera uzten da elkarrekikotasun txostena, Merkataritzako Mundu Erakundeko Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatueterako enpresei dagokienez).

1.2. Gutxienerako kaudimen baldintzei dagozkien berezitasunak

Jarraibide hauetako B.I. epigrafeko 2.4. idatz zatian xedatutakoaz gainera, betiere aplikatu egingo dira, kaudimena frogatzeko bideei dagokienez, 74. artikulutik 79.era bitartekoak.

1.3. Kalitatea bermatzeko arauak eta ingurumena kudeatzeko arauak

Kalitatea bermatzeko arauak eta ingurumena kudeatzeko arauak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez, 80. eta 81. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Horri buruzko xedapenak ekonomia eta administrazio baldintzen agirian ezarriko dira.

2. KONTRATUA PRESTATZEA

Baldintza teknikoak definitu eta ezartzearen 117. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Orobat aplikatu egingo da 118. artikuluan (kontratua gauzatzeko baldintza bereziak), 119. artikuluan (zergei, ingurumena babesteari, enpleguari eta



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

lan baldintzei buruzko informazioa) eta 120. artikuluan (lan kontratuetan subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa) ezarritakoa.

Kontratua egin behar bada behar atzeraezin bati erantzutearren, edo enpresa bati esleitzea bizkortu behar bada interes publikoko arrazoiengatik, kontratazio organoak presakakotzat jo ahalko du haren izapidetzea. Hala egiten badu, behar bezala arrazoitu beharko du prestakuntza dokumentuetan. Halakoetan, aplikatzekoa izango da epeak laburtzeari buruz 112.2.b) artikuluan xedatutakoa.

Ekonomia eta administrazio baldintzen agiriari eta baldintza teknikoen agiriari, betiere, azterketa eta txosten juridikoa egingo zaie.

3. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA

Behin betiko esleipenarekin burutuko da kontratua, eta idatziz formalizatuko da.

II. Baldintza agiria

Ekonomia eta administrazio baldintzen agiriak, jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean adierazitako xehetasunez gainera, arau harmonizatuei lotuta ez dauden kontratuetarako, ondorengo hauek zehaztu ahalko ditu:

- Kalitatea bermatzeko arauak eta ingurumena kudeatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea (SPKLTBko 80. eta 81. artikuluetan ezarritakoari jarraituz).
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, eta horiek ez betetzearen ondorioak (SPKLTBko 118. artikuluan ezarritakoari jarraituz).
- Zergetako, ingurumenaren babeseko, enpleguko eta lan baldintzetako betebeharrei buruzko informazioa (SPKLTBko 119. artikuluan ezarritakoari jarraituz).

III. Esleitzeko prozedura

Arau harmonizatuei lotutako kontratuak, SPKLTBko 190. artikuluan ezarritakoari jarraituz esleitu dira, Administrazio publikoko kontratuetarako xedatutako eran, egokitzapen hauek eginda:



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

- a) Ez da aplikatuko 150. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoa, irizpide subjektiboak balioztatzearen aditu batzordeak esku hartzeari buruzkoa.
- b) Ez da aplikatuko 152. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoa, eskaintzak ea ohiz kanpokoak edo neurrigabeak diren ebazteko irizpideei buruzkoa.
- c) Ez da aplikatuko 156. artikuluan kontratuak formalizatzeari buruz ezarritakoa, betiere 3. idatz-zatian ezarritako epea kontuan hartzeko betebeharraren eta 5. idatz-zatian aurreikusitakoaren kalterik gabe.
- d) Ez da aplikatuko 160. artikuluan ezarritakoa, proposamenak aztertu eta esleipena proposatzeari buruzkoa.
- e) Ez da aplikatuko 172. artikuluan ezarritakoa, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak esleitzearren prozedura negoziatua erabiltzeko aukera badakarten kasuetarako.

Presaren duelako, legean ezarritako gutxienezko epeak betetzea ezinezko denean, epeak txikiagotzeari buruz 112.2.b) artikuluan ezarritako dagoena aplikatuko da.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan, Batzorde jakin baten osakeraren eta eskumenaren bilduko dira. Batzorde horren ardura izango da aurkeztutako proposamenei buruzko ebaluazioaren objektiboa egitea eta Kontratazio Organoari esleipen-proposamena helaraztea; eta proposamen horretan barne hartuko da gehiegizkotzat edo ezohikotzat aitortu ez diren proposamenen zerrenda (proposamen altuenetik baxuenera) eta eskaintza ekonomikoki abantailatsuena adieraziko du, betiere Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan proposamenak balioesteko aurreikusitako irizpide objektiboak jarraiki.

Proposamen hori txosten juridikoarekin batera aurkeztuko da, baldin eta Batzordean aholkularitza juridikoa barne hartu ez bada.

Edozein kasutan, lizitatuzaileei bidaliko zaien esleipenaren jakinarazpenean barne hartuko da lizitazioetik kanpo geratu den lizitatuzaileak edo baztertu den hautagaiak esleipen-erabakiaren aurkako errekurtso arrazoitua jartzeko beharrezkoa duen informazioa, SPKLTBren 40. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Honako alderdi hauek barne hartuko dira jakinarazpenean:

- a) Baztertu diren hautagaiei dagokienez, aurkeztu duten hautagaitza baztertzeko arrazoiaren laburpena.
- b) Esleipen-prozeduratik kanpo geratu diren lizitatuzaileei dagokienez, aurkeztu duten eskaintza ez onartzeko arrazoiaren laburpena.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

c) Edozein kasutan, honako alderdi hauek zehaztuko dira: esleipendunaren izena, kasuankasuan eskaintza hautatzeko erabakigarriak izan diren eta gainerako lizitazzaileek aurkeztu dituzten eta onartu diren eskaintzekiko lehentasuna eman zaien proposamenaren ezaugarriak eta abantailak.

153. artikuluan barne hartzen den konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie esleipenaren zioei.

Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea zehaztuko da, 156.3 artikulua arabera.

Lizitazioa eta esleipena, ondorengo hauetan behintzat argitaratuko dira:

- a) Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean eta 334. artikuluan aipaturiko kontratatze plataforman, edo POLLOEren gainean agintea duen Administrazio publikoak kudeatutako sistema baliokidean.
- b) Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean eta Espainiako Aldizkari Ofizialean.

Orobat, bai lizitazio iragarkiak, bai behin-behineko eta behin betiko esleipena, kontratatzaile profileen argitaratuko dira.

IV. Errekurtsoak

1. PRESTATZEA ETA ESLEITZEA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurretik kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal izango da:

- a) lizitazioa arautzen duten ezaugarriak ezartzen dituzten lizitazio-iragarkien, Pleguen eta kontratu-dokumentuen aurka
- b) esleipen-prozeduran barne hartzen diren izapidetze-egintzen aurka, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna adierazten badute edo legezko eskubide edo interesekiko defentsa-gabezia edo kalte konponezina eragiten badute
- c) esleipen-akordioaren aurka.

Errekurtsoa ebazteko eskumena Donostiako Udalean horretarako eskumena duen organoarena da, betiere abuztuaren 5eko 34/2010 Legearen bigarren xedapen iragankorrean eta SPKLTBren 41. artikulua 4. eta 5. idatz-zatietan aurreikusten denari jarraiki.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia SPKLTBren 40. artikuluan eta hurrengoetan



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxa 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da.

Behin-behineko neurriak ezartzeko, SPKLTBren 43. artikuluan xedatzen denari jarraituko zaio.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa besterik ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari jarraiki.

Baliogabetasunari dagokionez errekurtsoa aurkezteko orduan, SPKLTBren 39. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

SPKLTBren II. Eranskinetik 17. kategoriatik 27.era bitartean bildutako zerbitzu-kontratuak, edozein zenbatekoa dutela ere, ez daude erregulazio harmonizatuaren mende; hala ere, kontratu horien zenbatekoa 193.000 euro edo gehiagokoa bada, kontratazio-arloko errekurtso berezia eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da haien aurka, betiere atal honetan aurreikusitako moduan..

2. ERAGINAK ETA IRAUNGITZEA

Kontratu horien eraginei, betetzeari edo iraungitzeari dagozkien gai orotan, **jurisdikzio zibilean** baizik ezingo da errekurtsoa aurkeztu.

V. Administrazioaren kabuz berrikustea

Arau harmonizatuei lotutako kontratuak prestatzeko egintzak eta behin-behinean nahiz behin betiko esleitzeko egintzak Administrazioaren kabuz berrikustea, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko VII. tituluko lehenengo kapituluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

Egintza horiek deusezak direla edo kaltegarriak direla deklaratzeko eskumena, POLLOEren tutoretza dagokion Donostiako Udaleko departamentuaren buruak izango du.

Horretan guztian, SPKLTBko 34. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

D. KONTRATATZAILE PROFILA

POLLOEk, Interneten bidez, bere kontratatzaile profilaren berri zabalduko du, bere kontratatzeko jarduerari buruzko informazioari dagokionez, gardentasuna eta jendearentzako eskuragarritasuna ziurtatzearen.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

Kontratzaile profileraz sartzeko bidea, lizitazio iragarkietan eta baldintza agirietan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratzaile profilaren euskarri den sistema informatikoak, hor jartzen den informazioa jendaurrean noiztik aurrera izan den modu fede emailean egiaztatzea ahalbidetzen duen gailua jarrita izan beharko du.

POLLOEren kontratzaile profilean argitaratuko dira datu eta argibide hauek:

- a) Kontrataziorako barne jarraibide hauek.
- b) Kontratuen lizitazio iragarkiak, salbu eta kontratu txikiak eta publizitate gabeko kontratu negoziatuak.
- c) Kontratuen behin-behineko eta behin betiko esleipena, salbu eta kontratu txikiak eta publizitate gabeko kontratu negoziatuak.
- d) Kontratuen formalizazioa erregulazio harmonizatuaren mende dago.

Horrez gainera, kontratzaile profilean sar daitezke POLLOEren kontratu jarduerari buruzko datu eta argibideak oro, adibidez: 141. artikuluko aurretiazko informazioko iragarkiak, une horretan egiten ari diren lizitazioak eta horiei buruzko dokumentuak, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, baliogabetutako prozedurak, kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko bideak, eta abar.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

I. ERANSKINA

4. artikulua. Kanpoan geratzen diren negozio eta kontratuak

1. Lege honetatik kanpo geratuko dira honako negozio eta harreman juridiko hauek:

a) Funtzionario publikoen zerbitzu harremana eta laneko legerian araututako kontratuak.

b) Zerbitzu publiko bat egiteko harreman juridikoak; zerbitzu hori erabiltzeko, erabiltzaileek tarifa, tasa edo aplikazio orokorreko prezio publiko bat ordaindu beharko dute.

c) Estatuko Administrazio Orokorrek honako hauekin egiten dituen lankidetzak hitzarmenak: Gizarte Segurantzako zerbitzu komunekin eta erakunde kudeatzaileekin, Unibertsitate publikoekin, Autonomia Erkidegoekin, tokiko entitateekin, erakunde autonomoekin eta gainerako erakunde publikoekin; bai eta erakunde eta entitate horiek elkarren artean egiten dituzten lankidetzak hitzarmenak ere, salbu Lege honi atxikitako kontratuzat jotzen badira, hitzarmenen izaera dela eta.

d) Administrazioak zuzenbide pribatuko pertsona fisikoekin edo juridikoekin egiten dituen hitzarmenak, hitzarmenok arautzen dituzten berariazko arauen arabera, betiere haien xedea ez dagoenean sartuta lege honetan edo administrazio arau berezietan araututako kontratuen xedean.

e) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikuluan sartzen diren hitzarmenak, defentsaren arloan egiten direnak.

f) Estatuak bestelako estatuarekin edo nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin egiten dituen hitzarmenak.

g) Horniketarako kontratuak, merkataritza, industria edo finantza jarduera edo antzekoa gauzatzen duten eta Administrazio Publikoaren mendekoak diren zuzenbide publikoko erakundearen zuzeneko jarduerari buruzkoak, baldin kontratazioko hornigaiak ondare trafikoa juridikoari itzultzeko asmoz eskuratu badira, eraldatuta edo eraldatu gabe, haren helburu berezietan arabera, betiere erakunde horiek legez esleituta dituzten berariazko eskumenak gauzatuz jarduten badute.

h) Kontratuak eta hitzarmenak, Europako Erkidegoko kide ez den herrialde batekin edo zenbaitekin Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren arabera egindako nazioarteko akordioetatik eratorritakoak, obrak batera egiteko edo ustiatzeko horniketari edo obrei buruzkoak, edo proiektu bat batera egiteko edo ustiatzeko zerbitzu kontratuei buruzkoak.

i) Kontratuak eta hitzarmenak, tropen egonaldia dela eta egindako nazioarteko



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

hitzarmena betez eginak.

j) Kontratuak eta hitzarmenak, nazioarteko erakunde baten berariazko prozedurari jarraikiz esleituak.

k) Bitartekotza eta adiskidetze zerbitzuei buruzko kontratuak.

l) Kontratuak, balioak edo bestelako finantza tresnak jaulki, erosi, saldu edo besterentzeari lotutako finantza zerbitzuei buruzkoak; bereziki, Estatuaren finantza kudeaketaren gaineko eragiketak, bai eta sektore publikoko baltzu, erakunde eta entitateek funtsak edo kapitala lortzera bideratutako eragiketak eta Espainiako Bankuak egindako zerbitzuak eta diruzaintzako eragiketak ere.

m) Kontratuak, sektore publikoko baltzu, erakunde edo entitate bat behartzen dutenak ondasunak edo eskubideak edo zerbitzuren bat ematera; ondasunak edo zerbitzuak jasoko dituenak, baldin lege honi atxikitako sektore publikoko erakundea bada, kontratuaren baldintzetara egokitu beharko du, dagokion kontratua egiteko.

n) Negozio juridikoak, negozio horiek betetzeko bitarteko propioa eta haren zerbitzu teknikoa esleituta dituen entitate bati enkargatzen zaionean prestazio jakin bat egitea, 24.6 artikuluan adierazitakoaren arabera. Nolanahi ere, enkarguaren xede diren prestazioak egiteko bitarteko propioa edo zerbitzu teknikoa duten entitateek egiten dituzten kontratuak lege honen mende izango dira, egiten dituen entitatearen izaeraren eta prestazioen zenbatekoaren eta motaren arabera dagozkien baldintzetan. Eta, edozelan ere, obra, zerbitzu edo horniketa kontratuak direnean, eta kontratuon zenbatekoek Atariko Tituluaren II. Kapituluko 2. atalean adierazitako mugak gainditzen dituztenean, zuzenbide pribatuko entitateek 137.1 eta 190 artikuluetan xedatutako arauak bete beharko dituzte prestazioak prestatzeko eta esleitzeko.

o) Jabari publikoko ondasunen gaineko baimenak eta emakidak eta ondarezko ondasunak ustiatzeko kontratuak (7. artikuluan zehaztu ez direnak); beren berariazko legediak arautuko ditu, salbu berariaz jotzen denean lege honetako preskripzioek arautuko dituela.

p) Ondasun higiezinak, balio negoziagarriak eta jabetza ukiezinak salerosi, dohaintzan eman, trukatu eta alokatzeko eta haiekin antzeko negozio juridikoak egiteko kontratuak, baldin ordenagailu programei buruzkoak ez badira eta horniketa edo zerbitzu kontratutzat jo behar ez badira. Halakoak beti izango dira kontratu pribatuak, eta ondare legediak arautuko ditu. Kontratu horiek ezingo dira sartu Atariko Tituluko II. kapituluko 1. atalean araututako kontratu tipikoetakoak ez diren prestazioetan, baldin haien kalkulaturako balioa negozioaren zenbateko osoaren % 50 baino handiagoa bada, edo baldin ez badute lotura edo osagarritasun harremanik ondare kontratuaren berezko prestazioarekin, 25. artikuluan xedatutako baldintzetan. Bi kasu horietan, prestazioak aparteko kontratazioaren xede izan beharko dira, lege honetan xedatutakoa betez.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

q) Estatuko Ikerketa Erakunde Publikoek eta Autonomia Erkidegoetako antzeko erakundeek egindako zerbitzu eta horniketa kontratuak, xede izango dutenak ikerketa, garapen eta teknologia berrikuntza edo zerbitzu teknikoetako proiektuak gauzatzeko beharrezko prestazioak edo produktuak ematea, horietatik eratorritako emaitzak aurkeztea edo lortzea lotuta dagoenean trafiko juridikora sargarri diren itzultze zientifiko, teknologiko edo industrialekin, eta horiek egiteko ardura erakundeko ikerketa taldeei eman zienean, lehiaketa prozesuen bitartez.

r) Erabat kontratazio organoak ordaintzen dituen ikerketa eta garapen kontratuak, baldin eta organo horrek esleipendun enpresarekin partekatzen dituen merkatuan eskuragarri dauden aukerez kanpoko irtenbide berritzaileak garatzeko beharrezkoa den ikerketa zientifiko eta teknikoaren arrisku eta onurak. Kontratu hauen esleipenean guztiz bermatu behar dira publizitatearen, lehiakortasunaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, bazterterik gabeko berdintasunaren eta ekonomikoki onuragarriena dena aukeratzearen irizpideak.

2. Aurreko atalean adierazitako kontratuak, negozioak eta harreman juridikoak beren arau bereziek zuzenduko dituzte, eta lege honetako printzipioak aplikatuko dira ager litezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

II. ERANSKINA

13. artikulua.

2. Aurreko idatz zatian adierazitakoa gorabehera, ez dira arau harmonizatuei loturikotzat hartzen ondorengo kontratu hauek (kalkulatzeko zaien balioa edozein dela ere):

- a) Irrati erakundeek irratirako saioak erosteko, garatzeko, ekoizteko edo besterekin batera ekoizteko diren kontratuak, bai eta irratizko hedapeneko denborari dagozkionak ere.
- b) Kontratazio organoak osorik ordaindutako ikerketa eta garapeneko kontratuak, betiere emaitzak ez baldin badira organo horrek bere jardueran soilik erabiltzeko gordetzen.
- c) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikuluan zehaztutako eremuko hitzarmenak, defentsaren arloan egiten direnak.
- d) Sekretutzat edo isilpekotzat deklaraturako kontratuak, edo indarrean den legediari jarraituz segurtasun neurri bereziekin gauzatu behar direnak, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestea eskatzen duten kontratuak.
- e) Xede nagusi hau duten kontratuak: kontratazio organoari ahalbidetzea telekomunikazio sare publikoak erabilgarri jar ditzaten edo ustia ditzaten, edo jendea telekomunikazio zerbitzu batez edo gehiagoz hornitu dezaten.



Polloe

Hileta-Zerbitzuak
Servicios Funerarios



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Hileta Zerbitzuak SA
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián S.A.

Polloe Plaza, 2 - Tel. 943483540 - Faxe 943579155 - polloe@donostia.org - www.polloe.org
20012 Donostia-San Sebastián

III. ERANSKINA

Sozietatearen izena DONOSTIAKO ZERBITZUAK, SA		HILETA		KONTRATAZIO ESKAERA	
Eskatzailea		Arloa		Eguna	
KONTRATUAREN XEDEA ETA KONTRATU MOTA					
ASETZEKOAK DIREN BEHARREN IZAERA ETA NEURRIA					
KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA					
INTERESGARRI DIREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK					
GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA					
Arlo eskatzaileko zuzendariaren oniritzia			Ekonomia arloko zuzendariaren oniritzia		
Izena		Izena		Eguna	
Eguna		Eguna			